BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

4501

AGINDUA, 2013ko urriaren 2koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Eibarko Egoitza Zentroan Egoitza Batzordeko kideak aukeratzeko hauteskunde-aldia irekitzen duena.

Uztailaren 2ko 164/2002 Dekretuaren bidez eratu zen Eibarko Egoitza Zentroa. Hasieratik nortasun, egitura eta antolamendu propioak eman nahi izan zitzaizkion eta Eibarko Hezkuntza Esparruan barne hartu.

Aipatutako Dekretuko 16. artikuluaren arabera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak –gaur egun Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako Sailak- zehaztuko ditu Eibarko Egoitza Zentroari dagozkion gobernu-organoak -pertsona bakarrak eta kolegiatuak-. Era berean, aipatutako Dekretuko lehenengo azken xedapenean adierazten denez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren Aginduaren bidez arautuko dira Zentroaren gobernu organoen funtzioak eta hautapen-prozedura.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2005eko ekainaren 22ko Aginduak ezartzen duenaren arabera, aipatutako zentroko hezkuntza-erkidegoa osatzen duten sektoreek parte hartzeko gobernu-organoa da Egoitza Batzordea.

Agindu horretan, halaber, Egoitza Batzordearen osaera zehaztu da, bai eta bertako kideak hautatzeko prozedura ere.

Agindu horren 7. eta 8. artikuluetan xedatutakoari jarraituz, dagokion ikasturtearen lehen hiruhilekoan aukeratuko dira Egoitza Batzordeko kideak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak -gaur egun Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako Sailak- horretarako adierazitako aldian eta lau urterako. Sailburuak aldarrikatuko du Egoitza Batzordeko kideak aukeratzeko aldia irekitzeko agindua.

Egoitza Batzordearen kideak 2009-2010 ikasturtean aukeratu ziren azkenengoz. Beraz, 2013-2014 ikasturtean berritu egin behar dira.

Ondorioz, eta eman dizkidaten eskumenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Eibarko Egoitza Zentroko Egoitza Batzordeko kideak aukeratzeko aldia irekitzea.

2. artikulua.– Hautapen-prozesua Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2005eko ekainaren 22ko Aginduaren II. kapituluan aurreikusi den moduan egingo da. Agindu horrek zehaztu ditu Eibarko Egoitza Zentroaren gobernu organoak, horiek aukeratzeko prozedura eta funtzioen arautzea, bai gobernu organoena bai zentroko irakasleena ere (2005eko uztailaren 28ko EHAA).

3. artikulua.– 2013ko abenduaren 20a baino lehen eratuko da Eibarko Egoitza Zentroko Egoitza Batzordea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 2a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.